

Gurasoentzako gutuna

Guraso agurgarriok,

Ongi etorri *My Home Booklet*-era! **Kid's Box 4**-ko unitate bakoitza eskolan bukatu ondoren, zuen seme-alabak *My Home Booklet* etxera eramango du ikasi duena zuei erakusteko.

Lagundu ahal izateko, ez da beharrezkoa ingeleseko maila altua izatea. Garrantzitsuena, egin duenagaitik interesa erakustea eta beharrezkoa denean laguntza ematea da. Honek bere ikasketa prozesuari mesede egingo dio.

My Home Booklet-eko 9 irakasgaietako bakoitzak hurrengo jarduerak barrneratzen ditu:

1. eta 2. jarduerekin, irakasgaiko hiztegiaren eduki garrantzitsuena eta gramatika lantzen da. Garrantzitsua da umeak egin beharrekua ulertzen duela ziurtatzea eta modu autonomoan lan egitera bultzatzea. Ariketak amaitzen dituen heinean, erantzunak irakurtzeko eskatu. Akatsen bat dagoela ohartuz gero, ez esan berehala, izan ere, ozenean irakurriz askotan bera bakarrik ohartuko da akatsaz. Horrez gain, gaiarekin zerikusia duten galderak egin ahal dizkiozue ingelesez edo berari buruz hitz egitera animatu dezakezue, egoki denean.

3. jardueran irakasgaien ikasitako hiztegia erabiltzen duen testu bat ageri da, eta ulermenezko ariketa erraz bat proposatzen du. Ikasleak testu hau eredu bezala erabiliko du hurrengo jardueran bere testua idazteko.

4. jarduera idazketako ariketa bat da. 3. jarduerako eredia aintzat hartuz, ikasleak antzeko testu bat idatziko du irakasgaien ikasitako hiztegia erabiliz. Idatzi aurretik ondo pentsatzera animatu, edo bere koadernoan testuaren zirriborro bat egiteko eskatu *My Home Bookletera* garbira pasatu aurretik.

5. jardueran autoebaluazioko ariketa bat aurkituko duzue. Zuen seme-alabari "I can..." esaldiak irakurtzeko eskatu, eta esaldiak egiazkoak diren pentsatzeko. Ariketa bakoitza egiteko erabiltzen duen gaitasuna adierazten duen aurpegitxo koloreztatu behar du.



Kid's Box

Oharra: *Basic competences Progressen*, orrialdearen beheko aldeko aurpegitxoan ondoan agertzen diren ikonoek landutako Oinarrizko Konpetentziak adierazten dituzte, Lehen Hezkuntzako kurrikuloak eta Europako Kontseiluak ezartzen duen era berean.

- 1 Ahozko komunikazioa
- 2 Gaitasun matematikoa eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologian.
- 3 Gaitasun digitala
- 4 Ikasten ikastea
- 5 Hiri eta gizarteko gaitasunak
- 6 Iniziatibazko zentzua eta espiritu ekintzailea.
- 7 Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

Azkenik, *My Home Booklet*-en amaieran, *Picture dictionary* bat dago, hau da, irudizko hiztegi bat, non zure seme-alabak irakasgaiko hiztegi garrantzitsu guztia bere hizkuntzara itzuliko duen. Gainera, *Spelling* deitutako atal bat dago, eta bertan *Pupil's Book*-ean landutako ortografia eta soinuak praktikatuko ditu.

My Home Booklet 4-ko zuen seme-alabarekin batera lan eginez ongi pasatzea espero dugu!

Zuen seme-alabaren ingeleseko irakaslea.

